ERABAKIA, Pasaiako Udalarena, etxebizitzetako zaborra biltzeko zerbitzurako, ontzi–horniketarako deia egiteko dena. 1334

# Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

IRAGARPENA, Industriako Bizkaiko lurralde ordezkariarena, Mañaria enpresak ustiatzen duen «Muchate» izeneko harrobiarekin jarraitzeko behar diren lurrak hartzeko, aurretiazko aktak egingo direla jakinarazteko dena. 1334

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 575

66/1995 DEKRETUA, urtarrilaren 24koa, aldez aurretiko ikuskatzea izan behar duten espedienteei dagozkien gastu mota bakoitzeko zenbatekoak finkatzen dituena.

Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak arautu zituen Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioaren barruko ekonomiaren barne-kontrola egiteko irizpide nagusiak.

Aipatutako legean irizpideak ematen zirenez, ezinbestekoa da bertan jasotako puntu batzuk garatzea, arauon ezarpena erraza, ulergarria eta beti berdina izan dadin, ez bakarrik eragile izango den organoarentzat, hau da Ekonomiaren Kontrolerako Bulegoarentzat, baita beste erakunde, zerbitzu edo norbanakoentzat ere, ekonomiari buruzko beren iharduerak bulego horren xede badira.

Aipatutako legearen 22.1.a) 3.) atala da garatu beharreko puntu horietako bat. Gastu-mota bakoitzeko zenbatekoa finkatu behar da, hortik gorako zenbatekoetan derrigorrezkoa baita aldez aurretiko ikuskatzea egitea.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko urtarrilaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

RESOLUCIÓN del Ayuntamiento de Pasaia, por la que se anuncia concurso para el suministro de contenedores para el servicio de recogida de basura domiciliaria. 1334

# Otros Anuncios Oficiales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

ANUNCIO del Delegado Territorial de Industria de Bizkaia, por el que se hace público el levantamiento de las actas previas a la ocupación de los terrenos necesarios para la continuidad de la cantera denominada «Muchate», cuya explotación realiza la mercantil «Mañaria S.A.». 1334

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 575

DECRETO 66/1995, de 24 de enero, por el que se fijan los importes unitarios por tipo de gasto correspondientes a expedientes sujetos a fiscalización previa.

La Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, reguló los principios rectores del ejercicio del control económico interno en el seno de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Dado que se trataba de una ley de principios, algunos de los extremos en ella contenidos han de ser necesariamente desarrollados para que la aplicación de la norma resulte sencilla, comprensible y regular, tanto para quien es su sujeto activo, la Oficina de Control Económico, como para aquellas entidades, servicios o particulares que, por sus actuaciones económicas, conforman su objeto.

Uno de estos extremos es el relativo a la fijación de los importes unitarios por tipo de gasto por encima de los cuales se hace preceptiva la fiscalización previa, todo ello en desarrollo del artículo 22.1.a).3.º) de la Ley citada.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de enero de 1995

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Xedea.

1.– Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1.a).3.) atalean aipatutako gastu mota bakoitzeko zenbatekoa finkatzea da dekretu honen xedea, hortik gorako zenbatekoetan derrigorrezkoa baita aldez aurretiko ikuskatzea egitea.

2.– Aurreko lerroaldian aipatutako ondorioetarako, aipatutako legearen 22.1.a) ataleko 1.) eta 2.) zenbakietan adierazitako gastuak ez dira jarriko dekretu honetan agindutakoaren menpean. Alderantziz, haien zenbatekoak edozein izanda ere, aldez aurretiko ikuskatzearen menpe egongo dira beti.

3.– Era beran, kanpoan geldituko dira aipatutako 22.1.a) atalaren 3.) zenbakiko azken puntuan adierazitako gastuak ere. Haien zenbatekoak edozein izanda ere, aldez aurretiko ikuskatze lanetik kanpo geldituko dira.

4.– Ohiko transferentziak eta kapitalaren transferentziak aldez aurretiko ikuskatzearen menpe ez daudela ulertu behar da, horien zenbatekoa edozein izanda ere.

*2. atala.–* Gastu mota bakoitzeko zenbatekoak.

1.– Aurreko atalean xedatutakoarekin bat etorriz, aldez aurretiko ikuskatzea jaso beharko dute jarraian aipatzen diren gastu mota horiek, bakoitzak bertan adierazitako zenbatekoak gainditzen baditu:

a) Obra kontratuak, 25.000.000 PTAtik goragokoa bada hasierako aurrekontua. Kontratu horiek izandako aldaketei, bai bakarrean zein guztiak batera hartuta, hasierako kontratuaren %25etik gorakoak direnean baino ez zaie aldez aurretiko ikuskapena egingo.

b) Hornikuntza kontratuak, 10.000.000 PTAtik goragokoa bada hasierako aurrekontua. Kontratu horiek izandako aldaketei, bai bakarrean zein guztiak batera hartuta, hasierako kontratuaren %25etik gorakoak direnean baino ez zaie aldez aurretiko ikuskapena egingo.

c) Laguntza tekniko, zerbitzu eta ohikoak ez diren lan zehatz eta berezietako kontratuak, 10.000.000 PTAtik goragokoa bada hasierako aurrekontua. Kontratu horiek izandako aldaketei, bai bakarrean zein guztiak batera hartuta, hasierako kontratuaren %25etik gorakoak direnean baino ez zaie aldez aurretiko ikuskapena egingo.

d) Ondasun higiezinen errentamendu kontratuak, urteko zenbatekoa 2.000.000 PTAtik gorakoa bada.

e) Ohikoak eta kapitalarenak diren dirulaguntzak, 10.000.000 PTAtik gorakoak badira.

f) 2.000.000 PTAtik goragoko era guztietako kalteordainak. Epigrafe honetan sartzen dira bai batera egindako arauzko ordainketak eta bai osasunerako eta ortoprotesirako sorospen gastuak itzultzeko izapidetutako espedienteak ere.

g) 2.000.000 PTAtik goragoko era guztietako maileguak eta diru-aurrerapenak.

h) Aseguru, zerga eta finantzaketa gastuak,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto determinar los importes unitarios por tipo de gasto por encima de los cuales es preceptiva la fiscalización previa a que se alude en el artículo 22.1.a).3.º) de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– A los efectos del párrafo anterior, no se entenderán sometidos a lo preceptuado en el presente Decreto los gastos que puedan estar incluidos en los números 1.º) y 2.º) del artículo 22.1.a) de la citada Ley, los cuales estarán siempre, independientemente de su importe, sujetos a fiscalización previa.

3.– Del mismo modo, no se entenderán incluidos los gastos a que se alude en el último inciso del número 3.º) del señalado artículo 22.1.a), los cuales estarán siempre, independientemente de su importe, excluidos de fiscalización previa.

4.– Las transferencias corrientes y de capital cualquiera que fuera su importe se entienden no sometidas a fiscalización previa.

*Artículo 2.–* Importes unitarios por tipo de gasto.

1.– Estarán sujetos a fiscalización previa, de conformidad a lo dispuesto en el artículo anterior, los siguientes tipos de gasto siempre que superen los importes unitarios que, asimismo, se citan:

a) Contratos de obra cuyo presupuesto inicial sea superior a 25.000.000 de pesetas. Las modificaciones de estos contratos sólo se fiscalizarán previamente cuando, unitaria o conjuntamente, supongan un porcentaje superior al 25 por ciento del contrato inicial.

b) Contratos de suministro cuyo presupuesto inicial sea superior a 10.000.000 de pesetas. Las modificaciones de estos contratos sólo se fiscalizarán previamente cuando, unitaria o conjuntamente, supongan un porcentaje superior al 25 por ciento del contrato inicial.

c) Contratos de asistencia técnica, de servicios y de trabajos específicos y concretos de carácter no habitual cuyo presupuesto inicial sea superior a 10.000.000 de pesetas. Las modificaciones de estos contratos sólo se fiscalizarán previamente cuando, unitaria o conjuntamente, supongan un porcentaje superior al 25 por ciento del contrato inicial.

d) Contratos de arrendamiento de bienes inmuebles cuyo importe anual sea superior a 2.000.000 de pesetas.

e) Subvenciones, tanto corrientes como de capital, superiores a 10.000.000 de pesetas.

f) Las indemnizaciones de todo tipo superiores a 2.000.000 de pesetas. Se incluyen en este epígrafe las entregas únicas reglamentarias y los expedientes que se tramitan como reintegros de gastos de asistencia sanitaria y ortoprotésica.

g) Los préstamos y anticipos de todo tipo superiores a 2.000.000 de pesetas.

h) Los gastos consistentes en aseguramiento, tributos

2.000.000 PTAtik gorakoak badira.

i) Aurreko epigrafeetan sartu gabeko beste gastu batzuk, atal honetako 2. lerroaldian adierazitakoaren irizpideari jarraituz 2.000.000 PTAtik gorakoak badira.

2.– Aurreko lerroaldian aipatutako zenbatekoak kalkulatu ahal izateko, bildu egingo dira batera agintzeko modukoak eta homogeneoak diren prestazioak, gertakariak, eragiketak edo balio ekonomikoa duten egintzak. Hartara, bada, ezingo dira zatitu edo banatu aldez aurretiko ikuskatzea ekiditeko.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

– Indarra hartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko urtarrilak 24.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

y gastos financieros siempre que superen los 2.000.000 de pesetas.

i) Otros gastos no incluidos en epígrafes anteriores cuando en seguimiento del criterio transcrito en el párrafo 2 de este mismo artículo superen los 2.000.000 de pesetas.

2.– A los efectos del cálculo de los importes señalados en el párrafo anterior, se englobarán, con referencia a un ejercicio económico, todas aquellas prestaciones, hechos, operaciones o actos con trascendencia económica homogéneos y susceptibles de comprometerse conjuntamente, sin que puedan fraccionarse con el fin de eludir su fiscalización previa.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de enero de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

# Agintariak eta Langilegoa

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**576**

83/1995 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia bere kargutik kentzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 18. ataleko j) idazatian, 26. ataleko 6. idazatian eta 29. atalean xedatzen denaren arabera, lehendakariaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko urtarrilaren 31n egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Javier Urizar Irazabal jauna, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi izatetik kentzea. Egindako zerbitzuegatik eskerrak ematen zaizkio.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**576**

DECRETO 83/1995, de 31 de enero, por el que se dispone el cese del Secretario General de Acción Exterior.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Lehendakari, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 31 de enero de 1995,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Cesar a D. Javier Urizar Irazabal como Secretario General de Acción Exterior, agradeciéndole los servicios prestados.